

Marie, yuongiarren herrian



Herria

Jatorrizko izenburua: *Le Pays*

Egilea: Marie Darrieussecq

Itzultzailea: Xabier Payá

Argitaratze urtea: 2009

Argitaletxea: Alberdania

INMA ERREA

“Nik ez nuen idazten gauzak gertatzen zitzaizkidalako, nik idazten nuen beste liburu batzuk existitzen zirelako, eta haietan gauza hauek idatzita zeuden, berdinak, betidanik: jaiotza eta heriotza, gizakiak eta nazioak, eta maitasunak, itsasoa, ametsak”. Hori dio Marie Rivière idazleak, Marie Darrieussecq idazlearen *alter ego*ak, *Herria* eleberraren bukaera aldean, 181. orrialdean.

Herria eleberrari arraroa da, arrotza eta ezaguna dirudi, aldi berean. Eleberrari den ere, edo beste zerbaitekin, eztabaidagarria da. Hainbeste puskez egina da, hain puska askotarikoez, non adabakiez osatutako *patchwork quila* edo burusia ematen baitu, funtsezko kontakizuna baino gehiago. Eta hala ere, edo agian horregatik, leitzen segitzera bultzatzen du irakurlea, hurrengo zer izango den jakiteko premia sorrarazten du harengan, altxor ezezagun baten bila lehorrean abiatutako itsas-abenturazale baten antzera.

Eleberrari edo dena delako kontakizun hau erakargarria bezain deserosoa izan daiteke, aldika. Babesa eta beroa ematen ahal dizkio irakurleari, burusi on baten eran, eta berdin sortzen ahal dizkio antsia txiki bat eta harridura handia, burusi azpian haurtzaroan asmatutako abenturek bezala.

Izan ere, fantasia ere badu osagai Darrieussecqen liburu honek, gogoetekin eta bere buruari egindako galderekin batera, *Ahardikeriak* hark zuen era berean. Fantasia, errealitatearen mozorro gisa, baina errealitatearen deserosoa erabat estali gabe.

Argumentuak sinplea dirudi, normala: idazle bat sorterrira itzultzen da, kanpoan osatu duen familiarekin; idazlea haurdun dago, eta egoera horrek bereziago bilakatzen du itzulera; eta idazleak zain ditu, irtenbide baten zain, jaiotze-familiako mamuak.

Baina Darrieussecq ez da konformatzen istorio hori modu konbentzional batez kontatzearekin. Horren ordez, Marie Rivière *alter ego*aren independentzia lortu berria duen sorterrira itzularazten du, Yuongiar Herrira, ele zaharra eta errealitate berri harrigarriak (zentral nuklear bat eta hologramaz betetako Hildakoen Etxea) uztartzen dituen herri txiki burujabera. Eta agian hor egiten dugu talka guk, euskaldunok, kontakizun honekin. Irudipena dut, baina seguru ere ez nago, hanka-puntetan pasatzen ari garela euskaldunok liburu honen gainean (kritika honez gain, beste bat ikusi dut bakarrik, Bixente Serrano Izok *Berrian* egindakoa).

Frantsesez idazten duen Darrieussecq baionarrari harrera bero samarra egin zitzaion orain dela urte batzuk euskal literaturan. Eta hura kontuan hartuta, harritzen nau hain gutxi esan izanak hain justu protagonistetako bat gure herria duen liburuari buruz. Agian gure isla ispilu deformatu baten bidez ematen duelako, herrietako festetan izaten diren beldurrezko barrakek nola?

Xabier Payá, bestalde, ez du lan makala izan, eleberrari hau itzultzeko orduan. Asmatu du maiz, esate baterako, amaren eta alaba jaiogabearen arteko bikoizketa *n/i* horren bidez adieraztean. Esamolde behartu samar batzuk ere badira euskal bertsoan, baina horietan jatorrizkoaren arrotzak zerikusirik handia duelakoan nago.